

Beste dei bat

Biaramonean, deilariak zerbitsariaren bitartez egindako deiaren orde, karta bat bialdu eutsan lendakariak.

Ez zan Paulo mandatari. Entzunak-entzun ez ziran ausartu zeregin ori areri lagaten.

Simon´ek gizon mardul a ikusi eta eskuetako karta emon eutsenerako igarri eban zer izango zan, baiña mandatariari ardurabakotasuna erakutsi nai izan eutsan.

Kartia artu, azaletik begiratu eta destain lakoa egin eban.

- Zer da au?

-Ez dozu ikusten? Karta bat.

- Zeiñena?

- Ezdozu Kofradiako zillua igarten? Lendakariarena dala uste dot. Arena dala ta nago. Arena dala esan eta bialdu nabe.

- Zetarako nai dot nik berau?

- Zeuk pentsatu bearko dozu.

-Mundu guztiak ez daki, irakurten ez dakidana?

- Ori zeure gauza da.

-Eta Kofradi guztiak ez daki lendakariak be ez dakiana? Esatea dauka bestela nungo eskolan ikasi eban.

- Etxean be ikasten dabe batzuk.

-Bai, umeak egiten. Beraz, karta au ezin lei izan lendakariarena.

- Nik esana egin dot.

-Orrenbeste ba dakizu. An tellatu bako etxe aretan dabiltzan arpegi biko mamuena izango da.

- Nik ez dakit ezer.

-Nik be ez dot jakingo, komunerako ondo etorriko da-ta.

-Ez dakizu diru partilla izango bada be.

- Kofradiak dirua emoten dabenean, aurrez ondo zabalduta

emoten dau, begirik eta belarririk ez daukan txalopako koastak be jakiteko eran. Orain arte beintzat orrela jokatu dau.

- Alantxe da, baiña...

- Ia, ikusi, irakurri zeuk zer diñon.

-Kontxo! Nik maiuskulak ezagutzen dodaz, baiña ez onela.

- Zer ba!

- Au eskuz egiña dalako.

- Eskolan ibili ta zeuk ez dakizu irakurten?

- Maiordomuaren letrarik ez beintzat.

-Eta nik, eskolan ibili barik, bai?

- Gaiñera, erderaz dago, ta nik oraindik ez dakit.

- Mutil, neure mesedean zatoz. Joan nasai ta eskerrak emon.

- Zeiñeri?

- Nai dautsazunari.

- Eta nire zeregiña bete ete dodan itanduten ba dauste?

- Ez estutu. Gorantziak emoteko agindu dautsudala esan.

- Eta gizonak batzarrean ba dagoz?

- Nortzuk?

-Mordo bat ikusi dodaz nik an.

- Nire zain?

-Itxuraz bai.

-Ondardi´n sarri egon dira ondamendiak, eta sekula ez dira batzarrean batu, eleizako illeta egitean ara joateko baiño. -Ori izan lei.

- Eta iñok jakin dau atzoko ez bearretik gure erri onetan beintzat illetarik egingo ete dan?

-Ez zan asko falta.

- Balitz eta ba zan biak alkarren kasan.

- Kanpaia jo eben.
- Egunero joten dabe kanpaia, eta ez baten bakarrik.
- Atzokoa Salbea zan.
- Umea egin aurretik andra askok be ez dabe agintzen ba?
- Orretan, ezin ukatu, gurean jaio diran bientzat jo izan dalako.

Irakurlea: Larraitz Agirrezabala, Balmaseda